



BARREN  
TOKIKOM



U  
D  
A  
L  
T  
Z  
A  
I  
N  
G  
O  
O  
A

Erreleboa  
eman du

HEZURRIK EZ DUZULAKO  
INPLANTERIK EZIN DUZULA  
EGIN ESAN DIZUTE?

ALDAZ HORTZ KLINIKETAN ESPEZIALISTAK  
GARA INPLANTEETAN

INPLANTE ZIGOMATIKOAK  
BEREHALAKO KARGA  
INPLANTE KONBENTZIONALAK



ALDAZ HORTZ KLINIKAK

Lasarte  
Ola Kalea, 10

Elgoibar  
San Bartolome, 22

Tolosa  
San Frantzisko, 39

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

## HARRI &amp; IRI

Motxaila eguna



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Elizkerak Leizuek, Yaguetokomak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UZOLA  
KLUBTAMENTU

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko Ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako guraso, ikasle eta irakasleei.

Bihotzez eskertu nahi diegu Ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako guraso, pasa den martxoaren 12an egindako Merkatu Solidarioan batutako dirua gure elkarteari eman izanagatik, eta ikasle eta irakasleei, egindako lanagatik. Oso pozik gaude gurekin gogoratu zaretelako eta azaldu diguzuen sentsibilitateagatik. Mila esker.

### Igandean, Eibarrera

#URDINDUZ2019# Martxoaren 31n Eibarren elkartuko gara autismoa ikusgai egiteko eta nahaste honen inguruan kontzientzia sortzeko. Animatzen al zara egun horretan herria urdinez janztera? Ibilaldiaren ondoren puzgarriak eta pintxoak egongo dira Untzaga plazan. Eibarko liburutegia ere urdindu da, eta interregune bat jarri dugu. Animatu eta etorri!

**Nuala Elkartea**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezin dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitz argitaratuko.



## Jose Luis Arrese Arizmendiarieta

2019ko martxoaren 26an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





## “Bizitzeko herri lasaia eta segurua da Elgoibar”

### ◆ Uste zenuena baino lehenago jubilatzeak aukera izan duzu. Nola izan da?

Abenduaren 14an lege berri bat onartu zuten, eta lege horrek dio udaltzain gisa lan egindako urte kopuru jakin batetik aurrera, bost urtez aurreratu daitekeela jubilatzeak adina. Uste dut 25 urtez udaltzain lanak egiteagatik, bost urte aurreratzeko dutela jubilazioa hartzeko adina. Beste baldintza bat zen Gizarte Segurantzaren gutxienez 37 urte izatea kotizatuta. Aspaldi esaten zuten lege hori onartuko zutela, eta azkenean iritsi da eguna. Nirekin batera Javier Arrizabalaga eta Javier Osoro ere

## ▶ JAVIER OÑEDERRA

UDALTZAINBURU OHIA

Abenduan aldatu zen lege batek aukera eman dio Javier Oñederrari 61 urterekin erretiroa hartzeko. 38 urte egin ditu Elgoibarko Udaltzaingoan. Elektrizista ikasketak egin zituen Eibarko Armeria Eskolan, baina lanean hasi eta gutxira lanik gabe gelditu zen, eta urtebete langabezian eman ondoren, udaltzain lanposturako aurkeztea erabaki zuen. Hiru lanpostu betetzeko deialdia egin zuen Udalak, eta bera izan zen aukeratuetakoa bat. 1984an, kabo kargurako azterketa gainditu zuen, eta azkenik, udaltzainburu posturako oposizioak gainditu zituen 1995ean. 24 urte egin ditu postu horretan.

- AINHOA ANDONEGI -

jubilatu dira, haien ere baldintzak betetzen dituztelako. Legea berriz aldatu aurretik, erretiroa hartzeko erabaki dugu. Ez disgustura geundelako, ezta gutxiagorik ere. Gaur egun Elgoibarko Udaltzaingoan lantalde oso egokia dago lan egiteko, giro oso ona dago langileen artean eta lasaitasun osoz lan egiten da. Gustura geunden, baina horrelako aukerak aprobetxatu egin behar dira. Sasoi ona daukagu, eta orain aprobetxatu behar dugu.

### ◆ Noiz eta nola erabaki zenuen udaltzain izatea?

24 urte egiteko nengoela sartu nintzen Elgoibarko Udaltzaingoan. Aurten, beraz, 38 urte beteko nituen. Ikasketaz elektrikaria naiz. Eibarko Armeria Eskolan egin nituen ikasketak, eta tailer baten hasi nintzen lanean. Baina orduan ere krisialdian geunden, langabezia-tasa oso altua zen, eta kontratua bukatu zitzaidanean lanik gabe geratu nintzen. Urtebete egin nuen langabezian, eta konturatu nintzen ezin nuela modu hartan jarraitu. Berriz ikasten hasi erabaki nuen orduan. UBI-COU egitera joan nintzen, Peritaje ikasketak egin ahal izateko, baina tarte horretan Elgoibarko Udaltzaingorako lan-poltsa ireki zuten, eta aurkeztea erabaki nuen. Azterketa teorikoa egin behar izan genuen lehenengo, eta proba fisikoak ondoren. Hiru lanpostu zuden, eta bost lagun aurkeztu ginen. Bik gainditu genituen probak eta lanpostu bat libre geratu zen.

### ◆ Nola pasatu zinen udaltzain izatek udaltzainburu izatera?

Ni sartu nintzenez ez zegoen udaltzainbururik. Kaboa zen nagusia, Eulalio Sanchez. Gerora, bi-hiru urtera, 83. urtean-edo Jose Zuazubizkar izendatu zuten udaltzainburu. 92an erretiratu zen hura, eta 95ean atera zituzten udaltzainburu postua betetzeko oposizioak. Udaltzain bezala sartu nintzen lehenik; gero, 1984an Kabotzarako aurkeztu nintzen, eta azkenik, udaltzainburu posturako. Hiru maila ezagutu ditut Udaltzaingoan.

### ◆ Zenbat lagunek osatzen dute Elgoibarko Udaltzaingoa?

21 langile daude une honetan. Udaltzainburua, OTA-TAOKo

langile bat, idazkaria eta gainerakoak, udaltzainak. Lantalde ona daukagu, eta Elgoibar esku onetan utzita jubilatua naiz.

♦ **11.000 biztanle inguru ditu Elgoibarrek. Nahikoa al da lantalde hori horrelako herri batentzat?**

Herriaren tamainari baino gehiago Udaltzaingoak ematen duen zerbitzuari begiratu behar zaio. Hiru txandatan lan egiten dugu. Hau da, 24 orduko zerbitzua ematen dugu, urteko egun guztietan. Txanda horiek bete ahal izateko langile guztiak dira beharrezkoak. Garai baten gaueko txanda kentzekotan egon ziren, baina nik mantentzearen aldeko apustua egin nuen. Langileen arteko katea etengo litzateke bestela, eta ez genuke gaueko inzidentzien berri izango. Elgoibarren beti egin dugu lan hirur txandatan, eta nire ustez, gaueko txanda hori ere behar beharrezkoa da. Herria zaintzen dugu gauean, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ematen die herritarrei. Ez dut esan nahi gauez lan egiten dugulako ez dela lapurretarik edo bestelako inzidentziarik gertatuko, baina gaizkileek badakite Elgoibarren gauez ere egiten dutela lan udaltzainek eta kontuz ibili behar dutela.

♦ **Nolako herria da Elgoibar, udaltzain baten ikuspegitik?**

Gaur egun oso herri lasaia da. Sasoi gogorak bizi izan ditugu, zapatuetan bereziki, baina astean zehar beti izan da herri lasaia. Larunbatetako kontua 84. urte inguruan hasi zen. Jendea etortzen zen kanpotik arratsaldeetan, baina 22:00ak alderako alde egiten zuten guztiek eta gaua lasaia izaten zen. Handik urte batzuetara botilatzarra hasi zen eta hirur bat urtez desmadre hutsa izan zen. Tren estazioko istripuarekin jo zuen goia egoerak. 2004an bi neska harrapatu zituen trenak, eta orduan erabaki zuen Udalak botilatzarra debekatzera. 2005ean onartu zuen Udalak kalean edatea debekatzeko ordenantza. Orduan jendea beranduago etortzen hasi zen Elgoibarrera, eta jaleoa ere beranduago bukatzen zen. Gauez liskarrak sortzen ziren, zaratak, bizilagunekin arazoak... Horren aurrean neurriak hartu behar izan genituen. Legedia eskuan hartuta, legeak baimentzen ziguna egiteari ekin genion. Tabernetan sartzeko hasi ginen, 16 urtetik beherakoak identifikatzen eta tabernariei isunak jartzen. Lehenengo gu bakarrik sartzeko ginen, alkoholaren kontsumoa kontrolatzera, baina gerora, Ertzaintzaren laguntza izan genuen, drogen kontsumoa kontrolatzeko. 2011-12. urteetan oso gogor jarri ginen, trenaren eta autobusaren etorrera kontrolatzen, eta gazte batzuk iritsi ahala identifikatzen genituen. Labanak eta bestelako tresna asko aurkitzen genituen, eta aurrekariak zituzten gazte asko identifikatu genituen. Egoera horren aurrean jende gutxiago etortzen hasi zen, eta asko lasaitu zen guztia.

♦ **Zapatuetako botilatzarra arazoa aipatu duzu, baina horren aurretik ere Elgoibarren garai gogorak izan ziren, heroinaren eraginez bereziki. Nola gogoratzen duzu sasoi hura?**

Bai, garai hartan udaltzain izatea ez zen erraza. Eta orain dela gutxi garai hura gogoratu zigun gertakari bat izan genuen.

Nire lankideek xiringa bat aurkitu zuten kalean. Txostena irakurri nuenean barruak buelta eman zidan. Gertakari puntual bat izan zen, eta ez dugu gehiago ikusi. Konprobatu genuen gainera, eta zorionez, insulina hartzeko xiringa zen. Baina oroitzapen txar asko ekarri zizkidan. Egia da sasoi zaila izan zela hura, baina zorionez, bukatu zen. Maalako Gaztetxea bota zuteneko sasoi ere ez zen gozoa izan, kale borroka istiluak ere izan genituen sartolome batzuetan eta hainbat herritarrek erredura garrantzitsuak jasan zituzten. Egoera hura ere latza izan zen.

♦ **Zein da udaltzainburu baten lana?**

Goizean goiz aurreko eguneko txosten guztiak irakurtzen nituen, eta hango informazioaren arabera lanak banatzen nituen. Ezer berririk egoten ez denean, langile bakoitzak badaki zein den bere zeregina, baina aldatetako daudenean txandak berrantolatuko behar izaten dira. Txostenak eta atestatuak egitea ere udaltzainburuaren ardura da. Salaketak bideratzea eta horiei jarraipena egitea ere bai. Mota guztietako salaketen jarraipena egitea oso garrantzitsua da, kasu batzuetan salaketak faltsuak izaten direlako. Lapurreten salaketa faltsuak jaso izan ditugu behin baino gehiagotan, eta argi ibili behar izaten dugu.

♦ **Zelako inzidentziak jasotzen dituzue Udaltzaingoan?**

Herritarrek jasaten dituzten kalteak izaten dira gehienak. Lapurretak, estafak... Ez dira izaten balore handiko lapurretak normalean, baina herritarrei kalteak eragiten dizkietenak dira. Etxetako lapurretak asko jaitzita daude Elgoibarren. Izaten dira, baina ez gehiegi. Genero indarkeria salaketak ere jasotzen ditugu tarteka, eta kasu horretan, salaketa bakar bat bera ere asko da.

♦ **Elgoibartarrek nola ikusten dituzte udaltzainak?**

Bi ikuspegi daude: udaltzainen partetik laguntza jasotzen duen herritarrek ondo ikusten gaitu, eta eskertu egiten du gure lana. Baina, aldiz, zigorra edo isuna jasotzen duen herritarrentzat dagoen txarrena gara. Eta ez gara, ez bata, eta ez bestea. Udaltzainak ez gara munduko onenak, baina txarrenak ere ez. Gu erdibidekoak gara, eta herritarrei laguntzeko gaude. 2018ko memoria txostena egin nuenean 800 bat laguntza-dei jaso genituela ikusi nuen. Bati giltzak ahaztu zaizkiola eta atea zabaltzeko deitzen digu, edo bakarrik bizi den adineko bat etxean erori dela eta hari laguntzera joaten gara... Horrelako asistentzia pila bat ematen ditugu.

♦ **Isunak aipatu dituzula... Herritarrek uste dutena baino zailagoa da isunak jartzea?**

Dudarik gabe. Isuna jarri aurretik asko pentsatzen dugu, eta beti saiatzen gara traban dagoen autoaren jabea topatzen. Oso isun gutxi jartzen ditugu. Urtean 1.000 edo 1.200 asko jota, eta txofer gaudenean egiten ditugun gauza guztiak kontuan hartuta, kopuru oso txikia da. Anekdotak bat kontatuko dizut: lehen, 4,21 euroko isunak genituen herrian, eta alegazio pila bat izaten genituen, isunak kentzeko eskatuz. Legea aldatu zen eta orain, gutxie-

*“Udaltzainak ez gara munduko onenak, baina txarrenak ere ez. Erdibidean gaude”*

neko isuna 40 eurokoa da, baina 200 eurokoak ere badaude. Ba orain ez daukagu alegaziorik. Azkar ordaintzeagatik %50a ordaintzen da; aldiz, alegazioa egiten baduzu eta ez badizute onartzen, isuna bere osoan ordaindu behar da. Askotan ez gara konturatzen autoa gaizki uzteak sortzen dituen kalteak. Denok uste dugu minutu bateko kontua izan dela, baina minutu horrek kalte handia eragin dezake. Minutu bat zamalanean gunean, minutu bat

elbarrien aparkalekuan, minutu bat espalo gainean... Bilera bat egin genuen isunekin nola jokatu zehazteko, eta irizpide batzuk zehaztu genituen, ahalik eta eskuzabalenak izateko. Ordutegia hartu genuen kontuan, autoak zenbaterainoko traba egiten zuen, trafiko handiko gunean ote dagoen gaizki aparkatuta... Irizpide horiek kontuan hartuta, isun asko barkatzen ditugu, eta hori askotan geure kontra doa, atzaparra eman eta besoa hartzen duelako jendeak. Zorrotzak izango bagina, askoz isun gehiago jarriko genituzke.

#### ◆ Nolakoa izan da zure lan ibilbidea?

Nik helburu bat jarri nion nire buruari, eta uste dut hori lortu dudala. Udaltzaingoan aldatzeko gauza asko zeuden eta hein handi batean aldatu ditudala uste dut. Nik nahi nuen Udaltzaingoa izatea herritarrentzako erreferentzia bat, eta lortu dut. Adibidez, genero indarkeria kasuetan Elgoibarko dei gehiago jasotzen ditugu Udaltzaingoan Ertzaintzan baino. Eta horrek esan nahi du herritarrek aintzat hartzen gaituztela. Orokorrean oso positiboa izan da nire ibilbidea. Lantaldean gus-tura egon naiz, giro oso onean egin dugu lan, despedidak egin ditugu... Ez dago arantzarik gabeko larrosarik, eta lanbide honek ere baditu bere arantzak, baina pozik nago egingakoarekin.

#### ◆ Zein da zure lan ibilbidean gogoratzen duzun momenturik txarre-na?

Asko gustatzen zait irakurtzea eta asko irakurtzen dut. Eta behin honako esaldi hau irakurri nuen: *“Recordamos lo que queremos olvidar y olvidamos lo que queremos recordar”*. Eta horixe da egia. Jubilatua naizen momentuan nire lan ibilbideko gauza guztiak ahaztu ditut, bai onak eta baita txarrak ere. Txipa erabat aldatu dut, eta burua beste gauza batzuetan daukat. Ez naiz ezertaz gogoratzen. Une honetan oso lasai nago. Gero etorriko zaizkit berriz ere oroitzapenak, baina momentu honetan ez dut ezer gogoratzen.



#### ◆ Elgoibarko udaltzain asko joaten dira Ertzaintzara. Elgoibarko Udaltzaingoa Ertzainen harrobia dela esan al daiteke?

Izan daiteke, eta horrek egia esan, harrotasun puntu bat ere ematen dit. Udaltzain gazteak lanbide honetan aurrera egiteak poza ematen dit. Euren ibilbide profesionalean aurrera egiteko gogoia kendu ez izanaz pozten naiz. Elgoibarren ikusi eta ikasi dutenarekin lanbide honetan jarraitu nahi izateak erakusten du ez dugula lana batzuek pentsatzen duten bezain gaizki egiten. Udaltzain sartzeari normalean ez da izaten bokazioz hartutako erabakia. Ez dago udaltzain izateko ikasketarik edo formakuntzarik. Behin barruan sartzen zarenean ematen dizute formazioa, eta orduan konturatzen zara gustatzen zaizun edo ez. Elektrizista izaten ikasteko formazioa badago, eta gutxi gorabehera pentsa dezakezu zer den elektrizista izatea, baina udaltzain lana zer den inork ez du jakiten barruan egon arte. Asko sartzen dira lanik ez daukatelako, baina gero, aurrera egitea erabakitzen duenak oposizioak gainditu behar ditu, eta hori ez da hain erraza.

#### ◆ Gomendatuko zenieke gazteei udaltzain sartzeari?

Bai, zalantzarik gabe. Orain gainera lanpostu asko sortuko dira, bai Udaltzaingoa eta baita Ertzaintzan ere, lege berri honi esker 80ko hamarkadan lanean hasi ginen asko jubilatuko garelako. Lan garrantzitsua egiten dugu, askok kontrakoa uste duten arren.

#### ◆ Jubilatua zara, gazte eta sasoiko. Zein asmo dituzu hemendik aurrera?

Jubilatuta bizitzen ikasten ari naiz. Nire lekua topatu behar dut eta denbora librea betetzen ikasi behar dut. Ordu asko eskaintzen nizkion lanari, eta oraindik ez naiz ohitu egoera berri honetara. Lehen, esaterako, igande iluntzean hasten nintzen hurrengo astea antolatzen, eta egiteko guztiak apuntatzen nituen agendan. 24 ordu telefonoaren arduraren egoten nintzen, nire lanpostuak eskatzen duelako lankideekin konektatuta egotea. Orain hori guztia ez daukat, eta denbora hori bete egin behar dut.

*“Irizpide batzuk zehaztu genituen, isun kontuetan ahalik eta eskuzabalenak izateko”*

## Ur parkea eraikiko du Elgoibarko Udalak Mintxetako aire libreko igerilekuen atzeko berdegunean

**E**lgoibarko Udalak ur parkea eraikiko du Mintxetan, aire libreko igerilekuen atzeko berdegunean. Gune irekia eta sarbide librekoa izango da. 206.600 euro inguru erabiliko dituzte ur-parkea egiteko, eta ondo bidean, aire libreko igerilekuen denboraldia hasterako lanak bukatuta egotea espero dute arduradunek.

### 25 ur-jolas interaktibo

Parkea ume eta gazteentzako izango da, eta uraz baliatzen diren 25 joko irisgarri eta interaktiboz osaturik egongo da. Guztira, 250 metro koadroko azalera izango du, eta hiru gune ezberdin egongo dira. Lehenengoa umeentzako



izango da eta uraren formetan oinarrituko da; bigarrena, aldiz, familientzako izango da eta familia osoak parte hartzeko gune aktibo bat izango du. Azke-

nik, hirugarren gunea gazteei zuzenduta egongo da eta ur kantitate handiagoz osaturiko jokoak izango ditu. Erabilitako uda berrerabili egingo da.

### Hasi dituzte Mendaron ludoteka berria egiteko obrak

Herriko Enparantzatik Azpilgoetara, Zelaikua plazara, aldatuko dute ludoteka Mendaron. Astelehenean hasi zituzten Azpilgoetako lokala berritzeko obrak. Ludoteka lekuz aldatuta, gaurko lokala, Goñati eraikineko hirugarren solairua, libre geldituko da. Hor, bizikleta batzuk eta teilatupean kirola egiteko beste makina batzuk jarri nahi ditu Udalak. Era berean, ludoteka lekuz aldatuta, beste bizi bat eman nahi diote Azpilgoeta auzoari.



### 160 zuhaitz landatu dituzte Elgoibarko ikasleek Moru mendian, Zuhaitz Egunaren harira



Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako ikasleek 160 zuhaitz (45 lizar, 45 haritz, 45 urki eta 25 gorosti) landatu zituzten Zuhaitz Egunean. Aurten-goia edizio berezia izan da, Moru mendiko magal batean landatu dituztelako estreinakoz zuhaitzak. Autobusez igo ziren Idotorberaino, eta oinez egin zuten handik Morura arteko bidea. Zuhaitzak landatu ostean, Moruko puntan egin zuten hamaketakoa, eta hango herrixkan egiten diharduten indusketa arkeologikoen berri jaso zuten ikasleek.



## 198.340 euroko diru-laguntza emango die Udalak herriko ikastetxeei

Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek hitzarmen bateratua sinatu dute, *Hezkuntza eta bizitzarako prestakuntza euskaraz* egitasmoaren barruan, eta hitzarmen horri esker, Udalak 198.340,52 euroko diru-laguntza emango die ikastetxeei, 2018-2019 ikasturteko hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko.

Diru-laguntza hori Udaleko Hezkuntza, Ongizate, Euskara, Berdintasun, Sustapen Ekonomiko eta Enplegua eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailek emandakoa da, sail hauen helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko.

Hitzarmen ekitaldiak ondorengoek hartu dute parte: Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Jabier Larrañaga Elgoibar Ikastolako zuzendaria, Raquel Agirre Herri Eskolako zuzendaria, Iñaki Odriozola Arreiturre Institutuko zuzendaria, Alberto Iturricastillo Meka Lanbide Eskolako zuzendaria, Ixaka Egurbide IMHko zuzendaria eta Imanol Basagutxibeaskoa CEPako zuzendaria.



### Diruaren banaketa:

Herri Eskola: 29.428,19	Meka: 9.045,36
Institutua: 23.153,73	CEPA: 1.000,00
Ikastola: 61.959,05	IMH: 73.754,19

## Artzaintzari eskainiko diote bihar, Elgoibarren, hileko azken zapatuko feria

Bihar egingo dute martxoko azken zapatuko feria, eta berezia izango da. Izan ere, artzaintzari eskainiko diote, eta ekintza guztiak artzaintzaren bueltakoak izango dira. Atabal elkarteak jarriko du txosna, eta arkume pintxoak banatuko dituzte, 11:00etatik aurrera. Era desberdinetan sukaldatutako pintxoak izango dira: gisatuta, parrillan, saltsa desberdinekin... Armueta Harategia eta Belaustegi jatetxearen laguntza jasoko dute antolatzaileek. Aipatu behar da biharko feriako saltokietan erosketa egiten dutenek tiket bat jasoko dutela txosnako pintxoan doan dastatzeko. 12:00etan, bestalde, gatzato tailerra egingo dute ume eta gaztetxoekin; 12:30ean Mausitxako Iñaki Ansolak gazta erakustaldia egingo du, eta Lizundia Txabolako ardiak nola jaizten diren ikusteko aukera ere egongo da. Kale Kantariak 12:00etan irtengo dira, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.

## Anfibioentzako hezegunea sortu du Morkaikok Sargoaten, auzolanean

Sargoateko iturriaren ondoan anfibioentzako hezegunea sortu du Morkaikok, auzolanean. Arduradunek esandakoaren arabera, gaur egun, anfibioak animalia talde mehatxatuenetarikoa bat dira: "Horiek babesteko



orduan, ezinbestekoa da ugaltzeko erabiltzen dituzten hezeguneak mantentzea eta ahal den heinean, hezeguneak urriak diren inguruetan berriak sortzea". Domekan egin zuten hezegunea prestatzeko irteera.

## Isiltasun Eskolak bi liburur aurkeztuko ditu bihar Musika Eskolan

Isiltasun Eskolak *En camino* liburua eta haren euskarazko bertsioa, *Bidean*, aurkeztuko ditu bihar, 11:00etatik aurrera, Musika Eskolako auditoriumean. Jose Cruz Igartuak idatzi du liburua, eta Andres Alberdik euskaratu du. Eduardo Osorok hasiko du ekitaldia, Elgoibarko Isiltasun Eskola gizarte ekimenaren ikuspuntutik azalduz. Jarraian, bi liburua aurkeztuko dituzte, eta *Isiltasuna, meditazioa eta adimen espiritual* izenburuko hitzaldia emango du Jose Cruz Igartuak berak. Saioa amaitzeko bost minutuko meditazio ariketa egingo dute. Ekitaldian, besteak beste, Jose Cruz Igartuaren Madrilgo hamalau ikaslek hartuko dute parte.

# Motxaila herriko garagardoa



**Herriko Gazte Asanbladak eskatuta, garagardogintza tailerra eman zuten otsailaren hasieran Mendaroko Motxaila Beer garagardo artisauaren ekoizleek, eta ikastaro hartara batu zirenek taldean ekoiztiko garagardoa dastatu zuten joan zen zapatuan Gaztetxean, garagardo artisauen ferian. 2017ko ekainean hasi ziren Motxaila Beer ekoizten Alain Ulazia, Iñaki Lazarobaster eta Mikel Tellabide, eta ordutik, produkzioa dezente handitu dute, eskaerari erantzuteko. Hain justu ere, produkzioa handitzeko eta garagardogintza prozesua errazteko neurriak hartzeko, etenaldi bat egitea erabaki dute orain, baina laster bueltatuko direla iragarri dute sare sozialen bidez.**

- AINARA ARGOITIA -

**G**aragardo bat eskatu du Mikel Tellabidek elkarrizketa hasterako, eta Deep Inside iluna ekarri dio zerbitzariak. “[Gordexolako] Laugar Brewery artisau garagardo ekoizleak eta Kataluniako Cerveces Las Pirata ekoizleak elkarlanean ekoiztiko garagardoa da. Garagardo artisaua”, zehaztu du. Garagardo komertzialen aldean, artisauak mila aldiz nahiago dituela dio, eta zorionez, gero eta taberna gehiagotan eskaintzen dituztela. “Garagardo artisauen aukera handia dago”. Horietako bat da Motxaila Beer, Altzola Berazeta baserrian ekoizten dutena. Duela bi urte inguru ekin zioten ekoizteari, etxean eta etxerako, Internetez erositako oinarritzko *kit* bat erabilita. “Hutsa” zekiten hasieran, baina irakurriaren irakurriaz, saiatuaren saiatuaz eta probatuaren probatuaz, lortu dute gustuko garagardoa ekoiztea eta lau garagardo motaren errezetak ixtea. Asko uste gabe hasi ziren garagardogintzan eta Tellabidek aitortu du eurek ere harrituta daudela egin duten bidez eta Motxaila Beer garagardoak izan

duen estimazioaz. Etxerako ekoizten hasi ziren, baina berehala hasi zitzaizkien bueltakoak eskean, eta konturatzerako, etxerako botilarik gabe gelditzen hasi ziren. “Aurreikuspenik egin gabe jardun gara beti, baina egia da gutako inork ez zuela uste Motxaila Beerrek horrenbesteko estimazioa izango zuenik”. Ekinaldi bakoitzean 80 bat litro botilaratzen dituzte orain (200 bat botila), eta eskariari erantzuteko, ia domekero jardun dira garagardogintzan azkeneko aldian. Hain justu ere, horrek, eskabide handiari erantzuteko jaiegun asko lotuak izateak eta produkzioa handitzeko instalazioak egokitu beharrak, etenaldi bat egitera eraman ditu, euren Facebook orrialdean jaso duten bezala: “Azkenaldian hainbat erabaki hartzen ibili gara eta instalazioak hobetu eta garagardogintza prozesua errazteko asmoz, garagardogintzan etenaldi bat egitea erabaki dugu. Ahal bezain laster bueltatuko gara”. “Nork esango liguke gaur halako egoeran egongo ginenik!”, bota du.

2017ko Motxaila Eguneke bazkalostean egosi zen Motxaila Beer garagardoa sortzeko ideia. "Eta jakina, Motxaila Eguneke berak eta izen bereko beste zeinbat gauzek moduan, honek ere Alainen [Ulazia] zigilua dauka. Iñakik [Lazarobaster] aitatu zidan niri, bazkaloste hartan. Enbidioa jo zion Lazarobasterrek eta birritan pentsatu gabe eman zion baietza lagunak. "Ingeniari kimiko bat behar zuela bota nion erdi txantxetan, eta hartu hark!". Eta konturaterako, Motxaila Beer whatsapp taldea sortu zutela iritsi zitzaion Tellabideri sakelakora. Izena bazuen ordurako garagardoa, eta luze barik ekin zioten hiru lagunek informazioa batzeari, nork bere aldetik. "Interneten dena dago gaur egun, eta ez zitzaizun hain zaila egin behar genuen dena eskuratzea. Logikoena garagardo horia ekoizten hastea zen, baina guk dozenaka garagardo mota probatu genituen lehenengo, geure gustukoena apartatu eta haren trazakoa egin nahi genuelako. Konturatu ginen garagardo iluna gustatzen zitzaigula denoi gehien, eta hura ekoizten hasi nahi genuen. Hain geunden ilusionatuta, zailenarekin probatzeko ere prest geundela". Internetez erositako *kita*, baina, garagardo horia egitekoa zenez eta euren buruengan konfiantza larregirik ere ez zuten, "hobeto pentsatu" eta aurrena, horiarekin saiatzeko pentsatu zuten. "Eta sekulako sorpresa hartu genuen edateko moduko garagardoa lortu genuela ikusi genuen. Fregaderako zulotik behera bota beharko genuela sinistuta geunden gu geu ere, baina garagardoa zen, edan zitekeen, eta sekulako poza hartu genuen".

Banatu zituzten botilak lagunaren artean, hartu zituzten kontuan batzuek eta besteek egindako ekarpenak, jolastu ziren apur bat errezeta erabat itxi arte, eta lortu nahi zuten horretara gerturatu zirela jabetu zirenean, langa maila bat gorago jarri zieten euren buruei: azokara eramatea. "Hain geunden emozionatuta, azeleratu egin ginela. Ekainean hasi eta abendurako Kontzezio Azokan geunden saltzen [2017]. Garagardo txigortua eta beltza eraman genituen, garagardo horia egiteko astirik ez genuelako izan. 250 bat botila eraman genituen, eta denak saldu genituen!". Jendea gehiagoren eske hasi zitzaion, gainera, eta apustu handiagoa egin zuten: 2018ko santanetan txosnan saltzea. "Garagardo horia eraman genuen, baina gureak zein harrera izango zuen ez genekienez, badaezpada, beste garagardo artisau bat ere eskaini genuen txosnan". Eta zer diren kontuak! Kontsumitu zen garagardoaren %80 inguru Motxaila Beer izan zen. "Sekulako lotsarekin joan nintzen beste garagardo botila guztiak entregatzen gero, neuk egin nuelako tratua. Ez nuen halakorik espero!", dio horren harira. Abenduan, mahaia jarri zuten atzera Kontzezio Azokan.

Lau garagardo mota eraman zituzten, 600 bat botila. "So-bratzen zitzaizkigunekin Elgoibarko Gabon Zahar Feriara joateko pentsatu genuen, baina denak saldu genituen".

Herrira mugatzen dute momentuz salmenta, nahiz Elgoibarko taberna batetik iritsi zaien eskabidea. "Konturatu gara gain hartzen ari zaigula kontua eta momentuz herrirako ekoizten dugu. Erantzun ahal izango genioke beharbada azken eskabide horri, baina epe motzean produkzio-arazoak izango genituzke, eta ez du merezi". Horregatik egin dute produkzioan etena. Altzola-Berazetan ekoizten dute Motxaila Beer, eta administrazioetik eskutatako betebeharrak egokitzen ari dira orain lokala. Harreman batzuk ere egin dituzte inguruko garagardo ekoizle batzuekin eta aztertu dituzte garagardo artisauetan erreferente direnak, "geurea hobetzeko asmoz". "Garagardoa gustuko duenak badaki antzekoak izanda ere, garagardo guztiak dutela euren berezitasuna. Gureak ere badu". Etiketa gabeko dozenaka botila jarrita ere, Motxaila Beer zein den zalantza handirik gabe identifikatuko lukeela dio: "Bai, oker handirik gabe". Bitxia dirudi, baina ura da Motxaila Beer-en ezaugarri bereizgarria. "Garagardoa kopuru handi batean ura da, eta guk Etungo ura erabiltzen dugu. Altzola-Berazeta ondoan dagoen iturritik hartzen dugu, ezaugarri jakin batzuetako ura da, eta sinistuta gaude hori dela gure bereizgarria". Edozer dela ere, zerbait badu, eta horren jakitun, Mendaroko Gazte Asanbladak garagardogintza tailerra antolatu zuen otsaila hasieran, joan zen asterako iragarria zuten garagardo artisauen feriaren prebia gisa. Mikel Tellabidek eman zuen ikastaroa, Iñaki Lazarobasterrek eta Zitoritz Urainek lagunduta, eta hogeitiki gora lagun elkartu ziren. 60 bat litro garagardo ekoizti zituzten (150 bat botila) eta joan zen zapatuko ferian edan zituzten denak. "Ez nuen uste nik Gaztetxeko baldintzetan egindako garagardoa hain ona irtengo zenik. Ur gabe gelditu ginen, eta garagardo trinkoa irten zen, zazpi gradukoa, baina oso zapore onekoa", azaldu du Tellabidek. Irakasleak ez ezik, ikasleak eta antolatzaileak ere gustura ziren. Etorkizuna badu.





Aitzol Mujika, Jesus Jimenez, Andoni Alonso eta Asier Olabarrieta.

## ▶ Arteak ireki dira Elgoibarren

**Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak aldatu egingo du tabernak urtean hamabi kontzertu ematera mugatu nahi dituen araudia. Hala jakinarazi zuten bariku iluntzean, Arteak Ireki plataformak zapaturako antolatutako protesta egunaren bezperan. EUDELekin bildu ostean hartu zuten erabakia Jaurlaritzak, hein handi batean protestek eraginda. Erabakia begi onez hartu zuten Arteak Ireki plataformak, baina hala ere, biharamunerako antolatuta zeuden ekitaldiei eustea erabaki zuten. Hala egin zuten Elgoibarko Musikarien Elkarteak ere, eta zapatu eguerdian, ekimenarekin bat egin zuten hainbat artista igo ziren Maalako oholtzara. Musikariek kantu bana eskaini zuten, eta amaieran, Taupada taldeko Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak esketx bat antzeztu zuten.**

- AINARA ARGOTIA -

**P**rotesta eguna zena ospakizun eguna bihurtu zen barikuan, kolpetik. "Herritarron garaipena ospatzeko eguna, baina baita plataformari babes adierazi eta mobilizatu diren guztiei eskertzekoa", zabaldu zuten Arteak Ireki plataformak, Jaurlaritzaren erabakiaren berri izan berritan. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren EAEko lehenengo erregelamenduak jasotako hainbat punturen kontra -bereziki 105 puntu- egiteko sortu zuten Arteak Ireki plataforma, askotariko kolektiboetako ordezkariak batuta. Puntu horretan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskaintza kulturala mugatzen zuten Jaurlaritzak: hilabetean ikuskizun bat antolatu ahal izango zuten taberna eta aforo txikiko lokalek, urtean hamabi gehienez. Arauak ez zuten salbuespenik onartzen. Hala, herriko jaietan ere muga berbera ezarriko zela jasotzen zuten araudian, eta mugatze horrek elizetako zuzenekoei ere eragiten ziela.

Kultur mundutik kritika gogorra egin zitzaion araudiari, uler-tuta musikari eta kulturari oro har arnasa kentzen zitzaiola, kulturaren birika diren taberna eta lokalei era horretako mugak jarrita. Horregatik, Jaurlaritzaren atzera egitea txalotu eta ospatu zuten zapatuan kulturzaleek. Nolanahi ere, etxafuegoak

botatzeko goizegi dela nabarmendu zuten. "Arretaz jarraituko dugu dekretu honen modifikazioa, helegiteen epeen nondik norakoak eta honek guztiak ekar ditzakeen aldaketak. Hamabiko limitazioa orain kendu izanak ez gaitu guztiz lasaitzen, kontsulten epea zabalitzen denean berriz ipintzea adostu daiteke-elako", adierazi zion astelehenean aldizkari honi Miren Narbaizak, Arteak Ireki plataformako bozeramaileetako batek. Ildo beretik hitz egin zuten Elgoibarko Musikaren Elkartearen presidentea Xabi Larrañagak ere: "Ez dakigu zertan geldituko den hau, eta badaezpada, hobe dugu tentuz ibili. Zain gaude". Jaurlaritzak berriro atzera egin eta lehengora bueltatzeko aukera ez dute baztertzen eta horregatik ezinbestekoa ikusten dute lokal guztiak babesteko dituen kategoria bat sortzea. "Lokal guztiak babestu, sustatu eta zainduko dituen kategoria bat sortzea, alegia". Nolanahi ere, pozik egoteko arrazoiak ere badaudela azpimarratu du Miren Narbaizak. "Ederra izan da kultur arloko eragile eziberdinak bat eginda ikustea borroka honen alde. Ederra izan da antzezle, programatzaile, artista, kultur zale, abesbatzetakoak, musikariak... mugarik gabeko kulturaren alde batu direla ikustea".



*Iñaki Larrañaga eta Oier Etxaniz.*



*Patxi Zabaleta, Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala.*



*Iban Urizar 'Amorante'.*



*Taupada. Jose Mari Larrañaga eta Edurne Lasa.*



*Bikustik. Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxaga.*



*Gabi Agirregomezkorta eta Alfonso Guillo.*



*Sinüose. Ander Mujika, Patxi Zabaleta eta Iban Urizar.*



## ► JUAN MARTIN ELEXPURU

FILOGOEA ETA IRUÑA-VELEIA ARGITU! EKIMENEOA

‘Erroma Euskal Herrian’ izeneko hitzaldi-zikloaren barruan, ‘Iruña-Veleia. Erromatar hiria Araban’ izenburuko hitzaldia eskaini zuen Juan Martín Elexpuru filologoak (Bergara, 1950) otsailaren 27an, Elgoibarren. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu zuen hitzaldia, Udalaren laguntzaz, eta Kultur Etxeko hitzaldi-gela bete egin zen. Hitzaldiaren aurretik, baina, ekimen honen sustatzaileetako bik, Ibon Serranok eta Jon Barandiaranek, Iruña-Veleiaren auziaren inguruko argi-ilunez galdetu zioten Juan Martín Elexpururi eta solasaldi haren transkripzioa duzue hau. Hitzaldia osorik: [www.barren.eus](http://www.barren.eus).

- AINARA ARGOTIA -

# “Nahi izanez gero, zientziak azkar asko argi dezake Iruña-Veleiako auzia”

♦ **Askok ahaztua izango dute dagoeneko auzi hau, baina oraindik itxi gabe dago. Noizko kontuez ari gara? Egiguzu laburpen bat.**

Beti jakin izan da Iruña-Veleian erromatar aztarnak zeudela, baina indusketa-lanak 1950. urte inguruan hasi zituzten. Gratiniano Nieto izeneko gizon batek bost induste-saio egin zituen orduan, induste lanetarako soldaduak erabilita. Urte askoan geldu egin zen dena gero, harik eta 1994. urte aldera Lurmen S.L. enpresakoek berriro ekin zioten arte. Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen zuzendaritzapean, zortzi urtez egon ziren Lurmenekoak Iruña-Veleiako aztarnategian indusketak egiten, oso baliabide gutxirekin. 2002an, hamar urterako lan-hitzarmena sinatu zuten EuskoTrenekin eta lortu zuten lanerako finantziazioa. Dena normal zihon, baina 2005-2006. urte bitartean garai ezberdinetan da-

tatutako ostrakak agertzen hasi ziren leku ezberdinetan [margotzen edo idazten ikasteko erabiltzen ziren kareharrizko edo zeramikazko zatiak]. Ostraka bereziak ziren, batez ere zuten tematikagatik eta hizkuntzagatik. Ezusteko handiena ostraka haien artean euskarazkoak topatzeak eragin zuen. 75 bat pieza topatu zituzten, eta haietan, euskarazko berba arruntak eta esaldi sinpleak irakur zitezkeen. Pieza berezi guzti haiek unibertsitateko irakasle batzuei erakutsi zizkieten, haien inguruko iritzia eman zezaten, eta benetakoak zirela esan zuten denek ahobatez. Aurkikuntzak poz handia sortu zuen, eta 2006an, prentsaurrekoa ere eman zuten pieza haiek aurkezteko. Baina, berehalaxe sortu ziren lehenengo zalantzak. Filologo batzuek esan zuten ezin zirela egiazkoak izan, ostraketako euskara ez zetoirelako bat ustez antzinako garai haietako euskararekin. Beste batzuek arrazoitu zuten Araban

ez zela euskaraz egiten sasoi hartan, eta beraz, ezinezkoa zela horrenbeste euskarazko ostraka Araban topatzea. Bi indar horiek batu ziren, akademikoa eta mediatiko-faktiko geopolitikoa, ordura arteko lan guztia zalantzan jartzeko.

♦ **Zalantza, hala ere, ez dago euskarazko grafito horietan bakarrik, ala?**

Ez. Euskarazkoak piezen %25 bat ziren, eta eztabaida haien inguruan lehertu bazen ere, laster zabaldu zen denera. Izan ere, zalantzak sortu ziren latinezko ostraketan eta batez ere irudietan batzuek RIP irakurtzen zutelako eta beste batzuek esaten zutelako garai hartako erlijio kristauak ez zuela ikonografia hori erabiltzen. Egoera horretan ikerketa batzorde bat izendatu zuen Arabako Foru Aldundiak, eta hamar hilabeteren ondoren batzordekide horiek -ia denak unibertsitateko kolegak ziren-, erabaki zuten pieza haiek faltsuak zirela.

♦ **Zertan oinarritu ziren, baina, arkeologo haiei iruzurra egin izana leporatzeko?**

Usteetan. Iritzi hutsetan oinarrituta auzipetu zituzten Eliseo Gil eta Oscar Escribano eta prozesua eternitate bat luzatu zen gero, epaileak bederatzi bat urte eman zituelako instrukzioa egiten eta Ertzaintzak ere urte mordoska bat pasatu zituelako txosten poliziala egiten. Atzeratzen-atzeratzen joan da dena, eta bitarte horretan, Lurmen S.L enpresak hogei bat txosten aurkeztu ditu ostrakak benetakoak direla frogatzeko, baina epaiketa egunik ez da zehaztu oraindik, eta hori harrigarria da, sekula ez delako herri honetan halakorik gertatu auzibide zela-halako gehiago egon badira ere.

♦ **Zein egoeratan gelditu dira denbora honetan kaltetuak izan diren Eliseo Gil eta gainerako auzipetuak?**

Egoera oso kaskarrean, batez ere Eliseo Gil bera. Bere ibilbide profesionala zeharo etenda gelditu da, eta gainera, oraindik ere Lurmen S.L enpresaren titularrak izaten jarraitzen dute Idoia Filloy eta biek, eta horrek esan nahi du, bihar edo etzi kalte-ordainak ere egon daitezkeenez, ezin dutela enpresa desegin. Eta horrek, jakina, oso egoera zailan jarri du Eliseo Gil, enpresa baten jabe denez, ezin dituelako hainbat diru-laguntza eskatu.

♦ **Eliseo Gilekin batera jardun zen indusketa lanak zuzentzen Idoia Filloy eta biak dira Lurmen S.L. enpresaren titularrak, baina Gil bakarrik dago auzipetuta. Zergatik?**

Auzi honetako beste misterioetako bat da hori. Hasieran auzipetu zuten Filloy ere, iruzur ekonomikoren bat leporatuta, baina egozten ziotenak ez zeukan ez hanka ez bururik eta artxibatu egin zuten kereila hura. Ikusi zen, gainera, kontabilitatea oso ondo zaramatela biek eta nahita ere ezin izan zuen hor inork eskurik sartu haien kontra egiteko. Judizialki, auzi hau desastre hutsa izan da hasieratik akaberaraino. Zure galderarentzako ere ez dago erantzunik. Eliseo Gil auzipetua dago, eta Idoia, ez. Eta uste dugu zentzugabekeria hori bera dela epaiketa ez egitearen arrazoi nagusia. Hainbeste xeblekeria egin dituzte bai Foru Aldundiak, bai batzordekideek eta baita epaiketegiak berak ere -ez dezagun

*“Judizialki,  
‘Iruña-Veleia auzia’  
desastre hutsa izan da  
hasieratik  
akaberaraino”*

ahaztu frogak salatzailearen esku utzi zituela, izugarriko beldurra diotela epaiketari, ebidentzian lagako lituzkeelako denak. Zer beste arrazoi ditu bestela maila honetako iruzurra egon dela uste duenak epaiketara ez deitzeko? Eta epaiketa ez egitearen ondorioak bi aldeentzat dira txarrak nire ustez, baina bereziki Eliseo Gilentzat dira txarrak,

oso egoera gaiztoan utzi duelako auzi bidegabe honek. Egia esan ez dakigu nola bukatuko den hau: epaiketa egingo den, ez den egingo... Eliseo Gilek aukera dauka epaiketa egin aurretik froga fisikoak, analitikoak-eta, egitea eskatzeko, baina epaileak uka diezaiokete hori eskatzea ere. Eromena da.

♦ **Jo dezagun akusazioak darabilen hipotesia egia dela eta Iruña-Veleiako ostrakak faltsuak direla. Zeintzuk izan zitezkeen Eliseo Gilen eta Idoia Filloyren arrazoiak faltsutze sistematikoa egiteko? Zein interes izan zezaketen?**

Guk geuk ez dugu interesik ikusten, ezta irudimenari bidea libre lagata ere. Ostrakak faltsutzen hasita inork ez lituzke 400 faltsutze egingo, hamar ganorazko eginda nahikoa lukeelako. Eta gainera, faltsutzen hastea erabakiz gero, logikoena da Akitanian, Sorian eta inguruetan agertutako piezak aztertzea lehenengo, ondoren haien kopiak egiteko. Logikoena modelo zaharrak errepikatzea da alegia, baina hemen halakorik ez dago. Euskara eta erlijioa daude hemen auzitan. Zenbait salatzailek uste dute aber-tzaletasunaren jukutria bat izan dela hau, abertzalegoari inportantzia emateko. Baina puntu honetara iritsita aitatu nahiko nuke ez Eliseo Gilek eta ezta Idoia Filloyk ere ez dakitela euskaraz eta euskaltzaletasun berezirik ere ez zaiela ezagutzen. Era berean, erlijio zaletasunik ere ez zaie ezagutzen, beraz, bi alde horietatik motibazio berezirik ezin zuten izan. Motibazio ekonomikoak mugitu zituenik ere ezin genezake esan, auzi honek miseria besterik ez dielako ekarri. Ertzaintzak zazpi urte pasatu ditu delitu honen balizko arrazoiak bila, eta txostenean jaso du “entzute profesionala eta ekonomikoa” bilatzen zutela.

♦ **Egiazkoak direla egiaztatuz gero, baina, aterako lukete irabaziren bat, ala?**

Dirurik ez, baina prestigioa ziurrenik bai. Hala ere, ez dezagun ahaztu lehendik ere bazutela izena bi arkeologo hauek. Nolanahi ere, nik esan nahi dudana da delituak frogatu egin behar direla eta usteak ezin direla sekula frogatzat erabili. Zientziak badiu tresnak, grafito baten antzinasuna zehazteko. Horixe delako zientziaren ezaugarrietako bat: gauzak zehazki neurtzeko tresnak edukitzea, iritzi denen gainetik. Nahi izanez gero, zientziak azkar asko erabaki dezake hau zer izan den.

♦ **Oker uste asko izango dira, baina hor bada bat azpimarratzekoa. Iruña-Veleiakoak ez dira euskarazko lehen inskripzioak, zaharragoak egon badaudelako. Zein da euskarazko ostraka hauen berritasuna?**

Pertsona eta jainko izenak dira Iruña-Veleiakoen aurretik agertutako denak eta gehienetan latinezko testuetan txertatuta agertu



Juan Martin Elexpuru filologoa, Jon Barandiaran eta Ibon Serrano elkarrizketatzaileekin.

dira izen horiek. Iruña-Veleiaren berritasuna da, baina, lehen aldiz euskarazko esaldiak eta hitz arruntak agertu direla. Eta bada beste kontu bat: Aurreko Erromatarren garaiko euskal inskripzio haiek baino mende bat edo bi beranduagoak direla hauek, Akitanian eta Sorian topatutakoak lehenengo eta bigarren mendekoak direlako, eta hauek bigarren eta bosgarren mende artekoak direlako itxuraz.

♦ **Ez dakigu noiz argituko den auzi hau, baina askatuko balitz, Iruña-Veleia izango al litzateke erromatar garaiko ondare historiko bizi eta handiena?**

Zalantzarik gabe, bai. Iruña-Pompaelo Iruña-Veleiaren antzekoa izango zen ziurrenik, edo akaso txikiagoa, baina hura aztertzetik ez daukagu orain, aztarnen gainean eraiki zutelako. Hau, berriz, osorik dago. Iruña-Veleian aurkikuntza handiak egin dira, baina aztarnategiaren %95 bat aztertu gabe dago oraindik. Beraz, atera kontuak hor zer egon daitekeen. Eredu oso zabala da aztertze dagoena, eta inguruak berak ere erakargaritasun turistiko handia du. Pentsa zer izan zitekeen Iruña-Veleia eskualde horrentzat, Arabarentzat eta Euskal Herriarentzat!

♦ **Polemikak beti izan du halako erakarmen bat. Dena iruzurra izanda ere, izango luke beharbada tirarik Iruña-Veleiak. Ez al duzu uste?**

Ez, ez. Ikusi besterik ez dago zeintzuk joaten garen hara. Geu, lau katu. Foru Aldundiak berak sekulako dirutza inbertitu du Añanako gatzagetan, baina Iruña-Veleiaren gainean halako izara beltz bat dago.

♦ **Iruña-Veleia Argitu! plataformako kide zara zu. Zer da zuen plataformak eskatzen duena?**

Hiru gauza eskatzen ditugu: piezak hasieran ziren moduan daudela ziurtatzea, protokologoak agindutakoa bete eta arkeometria probak hiru laborategi espezializatutan egitea eta industria kontrolatuak egitea aztarnategian, ukitu gabeko lurretan.

♦ **Zerk kostu izan dezake horrek?**

Hutsa.

♦ **Eliseo Gil-eta egotzi zituztenetik, industen jarraitu al dute Iruña-Veleian?**

Bai. EHUKo irakasle bat izan zen lehena, Julio Nuñez, lurmen en-

presaren aurkikuntzak faltsuak zirela esanez bi txosten sinatu zituen irakaslea. Hondeamakina batekin sartu zen aztarnategian eta futbol-zelai baten eremua harrotu zuen. Badirudi ITER XXXIV bidearen zati bat [Astorga eta Bordele hiriak batzen zituena bidea] aurkitzea zela bere asmoa. Txikizio galanta egin zuen.

♦ **Eta Eliseo Gilen taldekoek topatu zituzten piezen antzeko gehiago ez al dira agertu?**

Ez dakigu. Galdetu izan diote Nuñezi berari ere, baina topatu dituzten piezak ohikoak direla erantzun dute beti, garrantzirik ez dutela. Ez egon haiek ezer erakustearen zain, topatuko balituzte ere auskalo zer egingo luketen.

♦ **Iruzurra leporatzeko erabili dituzten argudio serioenak filologikoa dira. Zu filologian doktorea zara eta ez zaizkizu iruditzen argudio fidagarriak. Baina, hala ere Iruña-Veleiari buruzko liburuan honela diozu: "(...) Baina aurrez garbi utzi nahi dut ez dudala zalantzan jartzen Gorrotxategi eta Lakarra irakasleek gai filologikoez duten ezagutza sakona. Gainera pentsatzen dut konbentzimenduak eraginda jokatu dutela, pentsatzen zutelako testu horiek ezinezkoak zirela eurek aintzinako euskarari buruz zuten ezagutzaren argira".**

Hori 2009an idatzi nuen, eta gaur, beharbada, ez nuen hori horrela idatziko. Nolanahi ere, ez dago jende horren gaitasuna zalantzan jarri beharrik. Badute ezagutza eta prestakuntza, profesionalak ere izango dira, baina kasu honetan, nire ustez, kale egin dute. Hitzaldia esaldi batekin bukatuko dut gaur eta hori bera esango dizut: *Errare humanum est, perseverare diabolicum*. [Anneus Senecari egozten zaion esaldia da. Huts egitea gizakion kondizioa da, baina behin eta berriro huts egitea bera egitea diabolikoa da].

♦ **Zer gertatuko dela aurreikusen duzue?**

Inork ez zuen aurreikusiko hau horrenbeste luzatuko zenik, eta beraz, gauzak zein aldrebes egin diren ikusita, ni neu ez naiz ausartzen epe motzean zer gertatuko den esatera. Epe luzera, pentsatzen dut hau derrigor argitu behar dela, lotsagarria litzatekeelako gure herriarentzat hau dena airean uztea. Konponbide erraza du gainera.




## Emakumezkoen eskubaloiko erreferente izan da Elgoibar azken bi asteburuetan

**G**oi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izan dute aurreko bi asteburuetan Olaizaga kiroldegira gerturatu ziren zaleek. Martxoaren 15etik 17ra jokatu zuten jubenil mailako emakumezkoen Euskadiko Eskubaloi Txapelketako lauko finala. Barakaldoko Zuazo taldeak jokaturako hiru partidak irabazi zituen eta nagusitasunez irabazi zuten txapelketa. Sanloko Astigarraga GYS Sport taldeak lortu zuen bigarren postua, eta Espainiako Txapelketako sektorea jokatzeko sailkatzea lortu zuen. Sanlok eginiko eskaera onartu du Espainiako federazioak eta Elgoibarren jokatu dute sektore hori, apirilaren 12tik 14ra. Astigarragak Liberbank Pereda, Angel Optico Zamora eta Malkaitz Eskubaloia izango ditu aurkari. Joan den asteburuan, berriz, Eskubaloiko Euskadiko Kopa jokatu zuten Olaizagan senior mailako lau euskal talde onenek (Bera Bera, Zuazo, Kukullaga eta Aiala Zarautz). Bera Bera eta Zuazo ailegatu ziren finalera eta donostiarrek 28 eta 20ko emaitzarekin irabazi zieten finala bizkaitarrei. Zuazo taldean diharduen June Loidi elgoibartarrak ezin izan zuen Elgoibarko txapelketan parte hartu, martxoaren 21etik 23ra bitartean Espainiako selekzioarekin jokatu baitzuen Palenciako Nazioarteko Eskubaloi txapelketa. Suitza, Serbia eta Brasil izan zituzten aurkari, eta partida guztiak irabazi zituen Espainiak.



### Iker Izagirre hautatu dute Eskuko Berezkoen Gipuzkoako Txapelketan lehiatzeko

Eskuko Berezkoen Gipuzkoako Txapelketa apirilaren 6an hasiko da. Bigarren urteko alebin mailako 10 pilotari eta infantiletako beste 10 lehiatuko dira, buruz buru. Parte hartzaileak aukeratzeko hautaketa probak egin zituzten Tolosako Beotibar pilotalekuan, eta han nabarmendutakoekin osatu dute lehiatuko diren pilotarien behin betiko zerrenda. Horien artean da Lagunak pilota eskolako Iker Izagirre pilotari elgoibartarra. Alebinetan lehiatuko da. Gainera, txapelketa horretako lehen bi jardunaldiak Elgoibarren okatuko dituzte.





**KALITATE HANDIENENKO ATSEDENEAN ESPEZIALISTAK**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)


**LASTAIRA %100 NATURALA**



TERXY QUERCUS

## Angel Ibarluzea txapeldunorde Idotorbeko tiraldian, Gipuzkoako txapelketako aurrenekoa

Idotorbeko bolatokian hasi zuten, martxoaren 23an, Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa. 72 bolarik hartu zuten parte eta Elgetako taldearekin diharduen Iker Arizmendiarrira markinarrira gailendu zen, zazpi txirlo botata. San Migel taldeko Angel Ibarluzeak lortu zuen bigarren postua, sei txirlorekin. Floreaga taldeko Jose Muñoz azkoitiarra sailkatu zen hirugarren postuan, sei txirlo botata. Taldekako sailkapenean Eibarko Asola Berri taldeak lortu zuen lehen postua, 17 txirlorekin. Bolari elgoibartarrek osatu zuten podiuma, San Migel A taldeak egin zuen bigarren (13 txirlo) eta San Migel B taldeak hirugarren (11 txirlo). Berezia da aurtengo txapelketa, 50. ekitaldia baita. Gainera, Elgoibarren hasi eta bukatuko da, azken jardunaldiko jaurtialdia Aiastiako bolatokian jokatuko baitute, ekainaren 1ean.



## Amesti eta Burunza nagusi Euskadiko bikotekako dardo txapelketan

Iñaki Amestik eta Iñaki Burunzak osatutako Gabaz bikoteak irabazi du Euskadiko bikotekako txapelketa birtuala, II. taldean. Hamar bikotek hartu zuten parte guztira. Txapelketa birtuala da, hau da, aurkariak ez dute aurrez aurre jokutzen. Amestik eta Burunzak Gabaz aretoan dagoen makinan jokutzen dute. Garaipekin Espainiako txapelketa jokatzeke sailkatu dira. Binaka, banaka eta taldeka jokutzen ari dira Espainiako txapelketa, eta kasu honetan egongo da aurrez aurre jokatzeke jardunaldi bat: azaroan izango da, Galizian.

## Lagun Taldeako Aroa Saezek hirugarren egin du Mendaroko txirrindularitza lasterketan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, alebinen, benjaminen eta infantilen txirrindularitza lasterketa jokatu zuten, martxoaren 23an, Mendaroko Erramone industrialdean, eta Elgoibarko Lagun Taldeako Aroa Saez hirugarren sailkatu zen alebinetan. Alebinetan, bi podium osatu zituzten, mutilena eta neskena. Mutiletan, Odei Salaberria gailendu zen eta haren atzetik sartu ziren helmugan Alex Davila eta Aner Irizar. Nesketan, berriz, Arantxa Anduaga izan zen azkarrena eta Ainhize Lopez de Aretxabaleta eta Aroa Saez sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuan. Infantiletan, ez zen neskarik lehiatu eta honako hiru txirrindulari hauek osatu zuten podiuma: Julen Ballinak, Unax Errastik eta Sabin Abarrategik. Benjaminetan ez zuten sailkapenik osatu eta lehiatu ziren guztiek domina bana jaso zuten.



## 1a 800 korrikalari daude izena emanda Jose Gurutxaga kroserako

Jose Gurutxaga krosaren 16. ekitaldia antolatu du Elgoibar Ikastolak apirilaren 7rako. Jakinarazi dutenez, Elgoibarko eta Mendaroko 792 antxitxikari gaztetxok eman dute izena. Nagusiagoek, 2002. urtetik aurrera jaiotakoek, egunean bertan eman behar dute izena, 12:00ak baino lehenago udaletxeko arkupeetan.



## Gourette ingurura mendi-eski irteera egin zuen Morkaikok




**G**ourette eski estazio inguruetan, Pirinioetan, ibili ziren Morkaiko mendi taldeak antolatutako mendi-eskiko irteeran parte hartu zuten hamazazpi lagunak. Gourette-Artouste zeharkaldia egin zuten lehen egunean, martxoare 23an. Bidean Tourettes (2.771 m.) gailurrera igo zirela azaldu dute, "udaberriko elur baldintza ezin hobeez gozatzuz". Bigarren egunean Sanctus (2.482 metro) mendira igo ziren. "lagun" izan duten eguraldiaz gainera, asteburu osoan izan duten lagun arteko giro "aparta" nabarmendu dute Morkaikotik.

## Oñatin eta Eibarren lehiatu dira Elgoibarko igerilariak



Elgoibar Igeriketa Taldeko gaztetxoek bi txapelketetan hartu zuten parte, martxoaren 23an: Oñatin, benjaminek, eta Eibarren, alebinek. KZL txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu zuten Oñatiko Zubikoa igerilekuan, eta Elgoibarko taldeko 17 igerilari lehiatu ziren. Eneko Pastorrek bigarren postua lortu zuen 50 metroko lasterketan, krol estiloan, 33,59ko denbora eginda. Paula Calvok seigarren egin zuen 100 metroko bular estiloko lasterketan (1:55), eta Liher Juaristi zazpigarren postuan sailkatu zen 50 metroko bular estiloko proban (1:01). Egun berean lehiatu ziren alebinak Eibarren. Ligako bosgarren jardunaldian hartu zuten parte. Jon Dominguezek laugarren postua eskuratu zuen 1.500 metroko proban, 24 minutu, 42 segundo eta 92 ehuneko denbora eginda.

## Arrizabalaga-Garalde bikotearentzat Udaberri txapelketa




Kepa Arrizabalaga elgoibartarrak eta Berriatuako Xabi Garalde osatutako bikoteak lehen mailako txapela jantzi du Gipuzkoako Udaberri txapelketan, paleta goma modalitatean. Zarautz taldeko bikoteari, Zabala-Azpeitiari, irabazi zioten finala, 25 eta 21eko emaitzarekin. Mutrikuko Muruaitz frontoian jokatu zuten finala. Arrizabalaga eta Garalde bigarren urtez jarraian irabazi dute Udaberri saria.

## Maite Maiorak bigarren egin zuen Kolonbian, Pacifik Trail lasterketan

Maite Maiorak Pacifik Trail mendi lasterketan hartu zuen parte, martxoaren 24an. Kolonbiako Cauca bailaran jokatzen den lasterketako distantzia luzeeneko (63 kilometro) proban lehiatu zen Maiora, aurten ultra distantzien aldeko apostua egin baitu. Beste parte hartzaile askoren moduan, galduta ibili zen Maiora zenbait kilometrotan, ibilbidea adierazten duten markak loreen koloreekin nahasten baitziztzen. Azkenean bigarren postuan sailkatu zen mendaroarra (8:45:09). Emily Schmitz kolonbiarrak irabazi zuen proba (8:10:30). Sailkapeneko lehen hamarren artean kolonbiarra ez zen bakarria izan zen Maiora

## 'Etxera bidean, Xamarrekin' hitzaldiak itxiko du asteazkenean, Hasier Etxeberriaren omenezko zikloa

E lgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak *Biba Hasier!* ekimena antolatu dute bigarren urtez, Hasier Etxeberria idazle eta euskaltzale elgoibartarraren omenez. Bi hitzaldi antolatu dituzte: joan zen eguaztenean izan zen lehenengoa, eta hartan, eus-kara batua izan zuten hizpide Andres Alberdi eta Mikel Zalvide euskaltzainek. Datorren eguaztenean, apirilaren 3an, izango da bigarren hitzaldia, eta honek itxiko du aurtengo zikloa. Oraingoan, Juan Karlos Etxegoien *Xamar* izango da hizlaria. *Etxera bidean, Xamarrekin* hitzaldia emango du. 1980an ekin zion Xamarrek (Garralda, 1956) etxerako bideari. Amatziri euskaraz egin eta honek "pero... ¿por qué hablas así, mi chico?" erantzun zionean. Horrela hasi zen Frankismoan sortu, hazi eta hezitako belaunaldi baten istorioa. Jatorriz zegoen hizkuntzaren eta kulturaren gabezia ohartu eta hori berreskuratzea erabaki zutenean. *Etxerako bidea* zergatik eta zelan egin zuen galdetuko diote Xamarri, zelan ikasi zuen euskara; zelan ezagutu zituen haien benetako historia eta kultura. Etxerako bidean bizi izan zituen minak, penak eta pozak partekatuko ditu entzuleekin. Kultur Etxeko soitoan izango da saioa, 19:00etatik aurrera.



### Kultura digitalaren astea egin dute Elgoibarren

Haur eta nerabeek "teknologiarekiko jarrera sortzaileak" garatzea eta "Interneten erabilera arduratsua" sustatzea dira Gipuzkoako Kultura Digitalaren Astea izeneko ekimenaren helburuak. Asmo horretan eragiteko, ikasgela ibiltaria (autobusa) eta karpa bat egon dira Kalebarren plazan, joan zen ostiraletik eguaztenera arte, eta hainbat ekintza antolatu dituzte bertan. Besteak beste, bideo jokoak eta webguneak sortzeko tailerrak, ipuin kontalari saioak, sakeleko telefonoen erabilera ikasteko saioak... Ane Beitia alkateak eta Denis Itxaso Kutura eta Gazteriaren Diputatuak aurkeztu zuten ekimena, eta esan zuten sareen erabilera kritiko eta kontzientea sustatzea zela kultura digitalaren helburu nagusia. Arduradunak pozik daude izan duen harrerarekin: ikasgela ibiltarian 546 ume eta nerabe ibili dira, eta karpako ekitaldietan 185 lagunek hartu dute parte. Informazio eske, berriz, 241 lagun gerturatu dira.




### Bertso saioarekin hasiko dituzte gaur Motxaila Eguneko ospakizunak

Motxaila Eguna ospatuko dute bihar Mendaron, baina ospakizunak gaur hasiko dituzte, bertso saioarekin. Punta-puntako kartela osatu dute: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Alaia Martin jardungo dira bertsotan, Maialen Olazabalek jarritako gaiei erantzuten. San Agustin kulturgunean izango da bertso saioa, gaur, 22:00etan hasita. Azkeneko sarrerak Aitz Beltz tabernan daude salgai, 5 euroan. Bihar, bestalde, 9:00etan hasiko dituzte ospakizunak. Urtero legez, Aitzbeltzeko kobazulora abiatuko dira ordu horretan, Gaztetxetik, eta han, 11:00etatik aurrera, kantuak, antzerkia, poesia emanaldia, ipuinak eta bertsoak izango dira. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira Gaztetxean eta bazkalosterako, Nor Naiz, Inozentzio eta Jo ta Itoren saioak iragarri dituzte. Iluntzerako, berriz, trikipoteoa antolatu dute, Agosti eta Barrenarekin.



## Elgoibarko Izarrako Jon Olivares izango da 'Patria' telesaileko aktore protagonistetako bat



Jon Olivares (hirugarrena, lehenengo argazkian), Jokin Maiora eta Mauro Gonzalez.

**P**atria telesailean parte hartuko duten aktoreen izenak jakinarazten ari da poliki-poliki HBO katea, eta horietako bat da Jon Olivares (Osintxu, 1989), Elgoibarko Izarrako Atxutxia maika egitasmoko koordinatzailea. *Patriak* bi familiaren historia kontatzen du. Hasiera batean adiskidetasun estuak elkartutako familia dira, baina denbora asko igaro aurretik etsai bihurtuko dira arrazoi politikoak direla medio. Bi amak izango dira narrazioaren ardatz nagusiak, eta horiek bultzatuta, elkarrenganako gero eta gorroto handiagoaren biktima izango dira bi familiak. Ane Garbarain izango da ama horietako bat, Miren, HBOren fikzioan. Joxian senarrak (Mikel Laskurain) eta biek hiru seme-alaba dituzte eta horietako baten papera antzeztuko du Jon Olivaresek, Joxe Marirena, hain justu ere. Loreto Mauleónek (Arantxa) eta, *Handia* filmagatik Goya sari bat irabazi zuen Eneko Sagardoyk (Gorka) antzeztuko dituzte Olivaresen arrebaren eta anaiaren paperak. Jon Olivares ezaguna da Elgoibarren, batetik Atxutxiamaikako ko-

ordinatzailea delako, baina baita aktore lanetan ere ibilitakoa delako. Taupada antzerki taldeko kide da azken hamar urteotan eta taldearen hainbat lanetan parte hartu izan du. *Ikasgaia* obran, esaterako, bera izan da protagonistetako bat, Sara Iriondorekin batera. Horrez gain, *Alli abajo* telesail ezagunean ere parte hartu izan du.

### Datorren astean Elgoibarren grabatuko dute

Jokin Maiora eta Mauro Gonzalez mendarorrek ere aktore lanak egingo dituzte telesail honetan. Maiora, Soraluzeko casting-ean aukeratu zuten, eta Gonzalez, berriz, Elgoibarkoan. Datorren astean Elgoibarrera etorriko dira *Patria*-koak grabazio lanak egitera, eta besteak beste, parrokan grabatuko dute. Ondorioz, astelehen, astearte eta asteazkenean ez da 19:00etako mezarik egongo. Horren ordez, Maalako kaperan emango dituzte mezak egun horietan 9:00etan.

### Maddi Arriolak irabazi du Euskadiko musikari gazteen lehiaketa

Maddi Arriola biolin jole mendarorrek irabazi du Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketa, harizko instrumentuetan. Gasteizen jokatu zen proba asteburuan, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako musika eskoletako 150 ikaslek hartu zuten parte guztira. Maddi Arriola Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikaslea da.



### Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu dute asteburuan

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu dute asteburuan. Herriko Antzokian izango da ekitaldia. Zapatuan A mailakoak lehiatuko dira 16:30etik aurrera, eta domekan, berriz, B mailakoak, 11:00etatik aurrera. Larunbatean, Malen Galarraga, Eneko Etxaniz eta Jon Etxeberriak hartuko dute parte, eta domekan, Markel Goenagak, Aimar Almortzak, Maddalen Oñederrak, Jone Gilek eta Amaia Sasiainek.

### 'Plazatik Gaztetxera' txapelketaren Elgoibarko kanporaketa apirilaren 5ean jokatu da

Pare bat urtez Plazatik Gaztetxera txapelketako agendatik kanpora egon da Elgoibar, baina aurten berriz ere itzuliko da gure herrira. Apirilaren 5ean izango da kanporaketa, finalerdia, zehazki. 21:00etan egingo dute afaria, eta bertso saioa 22:30ean hasiko da. Sarrerak Derri eta Lanbroa tabernetan erosi daitezke, apirilaren 4ra arte.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest nago. ☎ 631 506 763

Adinekoak zaintzeko eta garbiketak prest nago. ☎ 631 729 476

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 602 490 595

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Pertsona arduratsua. Malgutasun osoa. ☎ 612 476 921

Pertsona arduratsua umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka, asteburuetan, ospitalean edo etxeko langile moduan ere bai. ☎ 612 574 783

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Gauzez ere bai. ☎ 632 928 108

Garbiketak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 722 228 156

Lan bila nabil. Ekonomia ikasketak ditut. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. ☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest nago. Ospitalean gauzak pasatzeko ere bai. ☎ 612 574 783

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 289 330

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 602 369 680

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Gauzetan eta asteburuetan ere bai. ☎ 658 464 396

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 678 112 785

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 688 735 551 / 674 579 736

Adinekoak edo zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 115 608

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Berehala hasteko prest. ☎ 658 273 486

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 643 355 834

Autonomia eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ 631 790 555

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 688 718 853

Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. Orduka egingo nuke lan. ☎ 690 134 485

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 626 407 923

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat eta mendeko pertsoneri arreta sozio-sanitaria emateko ziurtagiri profesionala. ☎ 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Malgutasun osoa. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest. ☎ 612 574 783

Erizaina lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ 632 752 739

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia. ☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. ☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 612 296 098

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 602 027 589

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituladuna. (Elena Agirre) ☎ 943 742 330 / 660 511 781

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 632 679 710

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Garbiketak ere egiten ditut. Orduzko malgua, berehala hasteko prest. ☎ 615 526 482

Adinekoak zainduko nituzke. Titulazioa eta esperientzia ditut. ☎ 628 529 252

Astegunetan garbiketak egiteko eta asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 643 464 072

Edozein lan egingo nuke. ☎ 643 781 722

Lan bila nabil. ☎ 602 323 088

Ostalaritzan egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 602 117 009

Umeak edo adinekoak zaintzeko edo etxeko garbiketa lanak egingo nituzke, orduka nahiz etxeko langile moduan. ☎ 643 374 471

Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest nago. ☎ 650 393 576

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest nago. Berehala hasteko moduan. ☎ 631 063 561

**Eskaintzak**

Meraki ileapaindegian laguntzaile postua eskaintzen da, lan-jardun erdiz eta berehala hasteko. ☎ 634 261 485

**PARTIKULARRAK.....**

Batxilergoko matematika eta kimikako klase partikularrak emango dituen irakaslea behar dugu. ☎ 645 728 812

LH eta DBHko eskolak ematen dira. Baita Batxilergoko ingelese ere. ☎ 630 055 077/ 666 667 183

LH, DBH eta Batxilergoko matematika, kontabilitatea eta finantza ekonomia klase partikularrak ematen dira. ☎ 666 042 710

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea alokagai Elgoibarren: hiru logela, trasteleku, sukalde egongela eta balkoi itxi oso eguzkitsua. Lehenengo pisua. ☎ 659 428 349

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 637 966

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia alokatzen dut, Jausoron. ☎ 647 216 314

**BESTELAKOAK.....**

Audifono bat aurkitu dugu larre inguruan. Udaltzaingoa utzi dugu.

Toiletzeko tren geltokian belarritakoa aurkitu dut. Hiru koloretako hiru harri ditu. ☎ 645 008 351

**administradores** Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Enteaketa Etxe Administrazioaren Nazionala



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Senarrak eta biok etxe bat daukagu gure komunitatean erdibana, gure bizilekua dena. Baina komunitate berean, nireak soilik diren beste bi etxebizitza ditut. Etxejabeen bilerak egiten ditugunean zalantzak izaten ditugu nere botoak zenbat balio duen zehazterakoan.**

Bi gauza bereiztu behar dira: Alde batetik, bi etxebizitzaren jabe zara, eta bestetik, irabazpidezko jabekidea zara senarrarekin batera beste etxebizitza batean.

Lehenengo kasuan legeak dio etxe edo lokal bat baino gehiago dituen jabeak boto bakarra izango duela, koefiziente guztien baturarekin. Jurisprudentziak, gainera, boto bakarra emateko aukera eskaintzen dio jabe bakoitzari, etxe edo lokal bakarraren jabea edo bat baino gehiagoren jabea izan. Baina partaidetza kuotari dagokionean etxe edo lokal bakoitzari dagokion partaidetza batura hartzen da kontuan.

Bigarren itxearren kasuan irabazpidezko jabekidetzaren bat dagoenez, ordezkari bat izendatu behar da, etxebizitza batzarrean parte hartzeko.

**ONDORIOA: Kasu honetan emazteak boto bat eta etxe propioen koefiziente batura izango du. Beste boto bat emateko aukera izango du senarrarekin erdibana daukan etxebizitzagatik eta horri gehitu behar zaio etxe honen partaidetza koefizientea. Hortaz, hiru etxebizitza daudenez inplikaturik, bi boto pertsonal eta hiru partaidetza koefiziente izango da azken emaitza.**

**NORFO**




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Maia**, zure 13. urtebetetzean. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Gorkaren partez.



Zorionak, **Ane-txo!** Ederki ospatu dugu zure lehenengo urtebetetzea. Muxu eta besarkada bero bat etxekoek partez.



Zorionak, **Jon**, eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Intza**, martxoaren 29an 2 urtetxo egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.




Zorionak, **Koldo!** 6 urte handi! Muxu pila bat anaia Julenen eta etxekoek partez.



Zorionak, **Eivind**, martxoaren 20an urtebete egin zenuelako. Muxuak familiako denon partez.



Zorionak, **Oier**, igandean 8 urte bete zenituelako. Muxuak etxekoek partez.




Zorionak **Ane Bastidari** 13 urte egin dituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak, **Martin**, martxoaren 24an 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoek partez.



Zorionak, **Danel!** 7 urte handi! Muxu handi bat familiakoek eta bereziki, Estanisen partez.



Zorionak, **Martin**, zure 7. urtebetetzean. Osaba-izeba eta lehengusinarekin partez.



**Mara**, astelehenean 2 urte egingo dituzulako, zorionak. Muxu bat, etxekoek partez.




Gure udaberriko larrosak dagoneko 7 urte! Zorionak, **June**, etxekoek partez.



Zorionak, **Izaro**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoek, eta bereziki, Danel, Oihan eta Jareren partez.



Zorionak, **Manex** eta **Magali!** Ondo-ondo pasa zuen 7. urtebetetzean! Muxu handi bana, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ane** eta **Amaia**, 12 eta 5 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana, familiakoek partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€  
Argazki bikoitza: 7€  
Hirukoitza: 9€  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€  
Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**IKASBAI**  
AKADEMIA

**IKASGO**  
ACADEMY

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaeelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaeelgoibar@gmail.com)

---

**IKASGO**  
ACADEMY

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

**IKASBAI**  
AKADEMIA

- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

RPS 10312

**40.**  
urteurrena  
**UZURI**  
optika audite

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

➤ **Apirileko eskaintza:**

TOTAL-1 lentillak erostean

20€

arteko deskontua  
\*kontsultatu baldintzak



➤ **Apirileko zozketa:**

Zozketa **50€** ko hiru erosketa bono, optikan gastatzeko



## 29 BARIXAKUA

**18:30** Transports erakusketaren inaugurazioa. Olaizaga kiroldegiko tabernan.

**22:00** Motxaila Eguneko bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Maialen Olazabal. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrerak salgai Aitz Beltzen, 5 euroan.

## 30 ZAPATUA

**Hileko azken zapatuko feria**

**9:00** Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

**11:00** Elgoibarko Futbol Kirol taldeak eta Danborradako lantaldeak txosna jarriko dute, Kalebarren plazan.

**12:00** Kale Kantariak. Elgoibarko kaleak girotuko dituzte, Kalebarren plazatik hasita.

**12:30** Gatzatu tailerra, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

### Motxaila Eguna, Mendaron

**9:00** Gaztetetik irteera.

**11:00** Aitzbeltzeko koban espedizioa, irrintzia, kantuak, antzerkia, poesia, ipuinak eta bertsoak. (Aldagelak frontoian).

**14:00** Bazkaria, Gaztetxean. Tzatziki, salmorejo, paella eta motxaila besoa.

**Bazkalostean**, Nor Naiz, Inozentzio eta Jo ta ito.

**Iluntzean**, trikipoteoa Gaztetetik abiatuta, Agosti&Barrenarekin.

**11:00** Aurkezpena: *Bidean* eta *En camino* liburuen aurkezpena. Isiltasun Eskolak antolatuta, Musika Eskolan.

**16:00** Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa. A mailakoek hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

## 31 DOMEKA

**11:00** Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa. A mailakoek hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

## 3 EGUAZTENA

**17:30** Hitzaldia: Lapurretak. Jubilatuentako segurtasun neurriak eta lapurretak ekiditeko gomendioak eskainiko ditu Ertzaintzak. Jubilatuen biltokian.

**19:00** Hitzaldia: *Exera bidean, Xamarrekin. Biba Hasier!* ekimenaren barruan. Kultur Etxeko sotoan.

## 4 EGUENA

**19:00** EHBilduren auzoz auzoko bilera, San Roken. Auzotarren kezak eta beharrak entzuteko bilera egingo dute, Institutuko areto nagusian (goiko Ezenarro eraikina).

**19:00** Morkaikoren bilera. Rokodromo berria egiteko aukerak aztertze bilera. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 5 BARIXAKUA

**18:30** Erakusketa: Egur Arte Eskolako umeen lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 13ra arte.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak

RPS233/13  
**Tel.: 943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 271/12

**ainhoa**  
ikioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

federópticos

**ikus**

RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**NATUR HOUSE**

**Ainara Iriondo Ansola**  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etebarria, 22  
Eibar  
677 551 850



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00	Iluntzean: 20:00-22:00	Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
29 BARIXAKUA	30 ZAPATUA	31 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIXAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gaez: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)

'Perdiendo el este'

29 barixakua: 21:30  
30 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
31 domeka: 19:00  
1 astelehena: 21:30



'La Lego, la película'  
(euskaraz)

31 domeka: 16:30



'Dogman'  
(Ongarri)

4 eguena: 21:30



ORDU ALDAKETA,  
DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 31n, **2:00etan, ordubetez aurreratu beharko** da ordularia.



gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida

**Jeku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratu eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 18  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 112/18

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**FUB** Fernando  
Urizar  
R.P.S.: 32/17 Barandiaran  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

## ▶ Elgoibarko EAJk aurkeztu du udal hauteskundeetarako zerrenda, Ane Beitia buru duela

Ane Beitia proposatu du Elgoibarko EAJk berriro ere alkate izateko. Beitiak jarraituko zuela esana zuten lehendik ere, baina atzo aurkeztu zuten jende aurrean. Kalebarren plazan egin zuten ekitaldia eta Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentek ere parte hartu zuen ekitaldian. Ane Beitziaz gain, honako hauek osatzen dute zerrenda: Iosu Arraiz, Andrea Arriola, Blanca Larrañaga, Maialen Gurrutxaga, Atsegin Uzuriaga, Iñigo Loiola, Gorka Garaizabal, Unai Arizmendarreta, Iñigo Palomino, Arrate Iriondo, Aitor Iriondo, Ibai Cid, Silvia Gabiola, Elias Larrañaga, Amaia Txurruka, Koldo Galdona, Ane Miren Etxeberria, Bittori Zabala, eta Joseba Arrizabalaga (izenak eman dituzte, baina ordena ez dute zehaztu).



## ▶ Jon Peli Uriguen alkategaiaren zerrendakideak aurkeztu ditu EHBilduk

Elgoibarko EHBilduk esana zuen Jon Peli Uriguen izango zela euren alkategaia, eta joan zen barixakuan gainerako zerrendakideak aurkeztu zituen. Honako hauek osatuko dute zerrenda: Jon Peli Uriguen, Itxaso Egaña, Joseba Osoro, Eneritz Azkue, Jorge Hernando, Aitziber Aranberri, Jon Etxabe, Jone Olaizola, Jose Javier Arregi, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Mirari Elorza, Gerardo Otero, Itziar Ibabe, Pello Mendizabal, Itziar Goñi, Iñaki Laskurain, Jaione Tudela, Iñaki Ulazia eta Nerea Etxeberria.


Horrez gain, Sigma eta San Roke auzoetan bizilagunen iritzi eta proposamenak jasotzeko egingo dituzten bileren berri ere eman dute. Apirilaren 4rako antolatu dute bilera San Roken, Institutuko areto nagusian (goiko Ezenarro aretoan), 19:00etan. Sigmakoa, berriz, apirilaren 10ean izango da, Sigmako eskoletan, 19:00etan.



## ▶ Fernando Suarez proposatu du Elgoibarko PSE-EEk alkate izateko

Fernando Suarez izango da Elgoibarko PSE-EEren alkategaia. Lau legealdi egin ditu Suarezek Elgoibarko udaletxean zinegotzi, eta lehenengo aldiz bera izango da sozialisten zerrendaburua. Suarezek esan du "ilusio handia" duela eta urteotan pilotutako esperientzia herritarren zerbitzura jarri nahi duela. Programa "serioa" eta "koherentea" prestatu dutela nabarmendu zuen, eta espero duela herritarren ekarpenak jasotzea denen artean programa errealista bat osatzeko. PSE-EEren zerrenda beste honako hauek osatzen dute: Ariana Nogales, Daniel Santos, Joseba Fernandez, Miren Goreti Azkarate, Angel Cabezuelo, Francisco Linares, Manuel Fernandez, Gloria Piedad Garcia, Silvia Astorga Martinez, Pedro Nogales, Maria Begoña Nieto Peñas, Purificación Caballero Madrid, Maria Jose Vicandi Santillana, Jose Luis Romarate Zabala, Ruth Morcillo Cerdan eta Santiago Sesma Moreno.





II. URTEURRENA

## *Hasier Etxeberria Canales*

2017ko martxoaren 29an hil zen, 59 urte zituela.

HAIN DU GOZOA

UDAK ITZALA

HAIN GOZO

NEGUAK EGUZKIA

BEUDE BIAK BETIKOZ GUGAN

ZU ZAUDEN BEZALA, HASIER

Etxekoak



## *Beatriz Esteban Esteban*

2019ko martxoaren 9an hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.***



Eskertzak eta urteurrenak

943 744 112



## *Puri Iriondo Agirregomezkorta*

2019ko martxoaren 21ean, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,  
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.  
Zure indarrak emango digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***



Etxekoak

# LOKAL BERRIAK ALOKAGAI

Erretsundi, 1 - Elgoibar

**943 531 644**

Kanpoaldera ematen duten lokalak.  
Interneterako instalakuntza.

Aire egokitua.

Gune eguzkitsua.

Aparkatzeko arazorik ez.

60m<sup>2</sup>



42m<sup>2</sup>

